

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAN UDAL-ESKUMENENKO HONDAKINEN BILKETA ARAUTZEKO ESPARRU-ORDENANTZAREN AURRETIAZKO KONTSULTA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (APEL) VI. tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza-ekimena eta araugintza-ahala, eta bere xede nagusia da herritarrek arauak egiteko prozeduran duten parte-hartzea handitzea.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, araua egin aurretik, haren eraginpean egon daitezkeen herritarren eta erakunde adierazgarrien iritzia jasoko da, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, hura onartzeko premia eta egokitasuna, haren helburuak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Horrenbestez, ordenantza fiskala egin aurretik, honako memoria hau jendaurrean jarri da:

- **Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.-** Udal-eskumeneko hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua arautzea.
- **Onartzeko premia eta egokitasuna.-** Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko 7/2022 Legearen azken xedapenetako zortzigarrenak xedatutakoaren arabera, toki-erakundeek 12.5 artikuluan aurreikusitako ordenantzak onartuko dituzte, beren eskumeneko hondakinen bilketari eta kudeaketari buruzko betebeharrak berriak betetzen direla bermatzeko.
- **Arauaren xedeak.-** Funtsezko helburuak dira:
 - o Arabako Mendialdeko Kuadrillan, udal eskumenekoak diren, hondakinen lagapenaren eta bilketaren ekintzak eta jarduerak arautzea.
 - o Eskumen-esparrua zehaztea.
 - o Zerbitzuaren erregulazioa.
 - o Erabiltzaileen betebeharrak eta eskubideak ezartzea.
 - o Zehapen-araubidea ezartzea egin litezkeen arau-hausteetarako.
- **Bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.-** Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko 7/2022 Legearen azken xedapenetako zortzigarrenaren arabera, toki-erakundeek, beren eskumeneko hondakinen bilketari eta kudeaketari buruzko betebeharrak berriak betetzen dituztela bermatzeko, dagozkien ordenantzak onartu beharko dituzte. Ordenantzak araudi berrira egokitzea eskatzen duena lege-agindua denez, ez dago, beraz, bestelako irtenbide arautzailerik eta ez-arautzailerik.

KONTSULTATZEKO ETA JENDAURREAN JARTZEKO EPEA

Aurrekoa betetzeko, hala nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek planteatutako alderdiei buruzko iritzia eman ahal izango dituzte 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau eskualdeko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori 2022ko irailaren 28an amaituko da.

BIDEA

Proposamenak ingurumena@arabakomendialdea.eus helbide elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dira, baita APELen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bideen bitartez ere.

Santikurutze Kanpezun, 2025ekomartxoaren 14ean

PRESIDENTEA

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz